

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

Ale berezia:

**Aurrekontuen
murrizketarik ez:
fiskaltasuna aldatu
eta gastu soziala han-
ditu**

Hego Euskal Herriko (*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	ERREFERENTZI ALDIA		12 HILE LEHENAGO
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA			
JARDUERA TASA (%)	73,5	2009ko IV. HIRUHILEKOA	74
JARDUERA TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	71,3	2009ko III. HIRUHILEKOA	71,3
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	1.189.600	2009ko IV. HIRUHILEKOA	1.248.300
SOLDATAKO BIZTANLERIA	989.000	2009ko IV. HIRUHILEKOA	1.006.000
ALDI BATERAKO TASA (%)	22,1	2009ko IV. HIRUHILEKOA	25,4
ALDI BATERAKO TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	13,8	2009ko III. HIRUHILEKOA	14,3
BIZTANLERIA LANGABETUA	155.300	2009ko IV. HIRUHILEKOA	113.700
LANGABEZI TASA (%)	11,5	2009ko IV. HIRUHILEKOA	8,3
LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	9,1	2009ko III. HIRUHILEKOA	6,9
GAZTEEN LANGABEZI TASA (%)	34	2009ko IV. HIRUHILEKOA	22,6
GAZTEEN LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	20,4	2009ko III. HIRUHILEKOA	15,7
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA (%)	12,3	2009ko IV. HIRUHILEKOA	9,3
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	9	2009ko III. HIRUHILEKOA	7,4
SINATURIKO KONTRATUAK	128.455	2010eko URT-OTS.	126.493
KONTRATATU MUGAGABEAK	10.698	2010eko URTARRILA-OTSAILA	12.538
ENPLEGU ERREGULAZIOA			
ONARTURIKO FITXAK	273	2010eko URTARRILA	237
ERAGINDAKO LANGILEAK	4.888	2010eko URTARRILA	5.792
LAN ISTRIPUAK			
ISTRIPUAK GUZTIRA	INFORMAZIO FALTA		134.305
HILDAKO PERTSONAK	INFORMAZIO FALTA		103
ESKAINNTZA ETA ESKARIA			
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn (%ALD.)	-7,1	2010eko URTARRILA	-26,7
BPGd EAEn (%ALD.)	-2,5	2009ko IV. HIRUHILEKOA	0,3
BPGd NAFARROAN (%ALD.)	-1,9	2009ko IV. HIRUHILEKOA	0,3
BPGd ESPAINIAR ESTATUAN (%ALD.)	-3,1	2009ko IV. HIRUHILEKOA	-1,2
BPGd 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	-2,3	2009ko IV. HIRUHILEKOA	-1,8
PREZIOAK			
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN (% ALD.)	0,9	2010eko OTSAILA	0,7
URTEARTEKO KPIa 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	1,4	2010eko OTSAILA	1,8
<p>* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.</p> <p>* Enplegu eta langabeziko datuak, 16 eta 65 urte bitarteko adin tarteari dagozkie. Bestela, adin tartea zehaztuko da.</p> <p>Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea, Eurostat, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, Instituto Navarro de Salud Laboral, Instituto Nacional de Empleo, Instituto Nacional de Estadística, ELAko Lan Osasun Alorra</p> <p>2010/03/30ean eguneraturiko informazioarekin</p>			



Aurkibidea

A. Politika publikoak: aurrekariak eta egungo egoera4

1. Gastu publikoaren politika murriztailea.....4
2. Zerga-politika zentzugabea.....4
3. Etengabeko superabita5
4. Zor publiko gero eta txikiagoa6

B. Egoera berria. Murrizketa gehiago6

1. Aurrekontuak doitzeko plana, 2010rako onartu zen gastua murrizteko6
2. Erabakitze ahalmenari uko egitea, zor publikoa jaulkitzeari buruz7

C. ELAren proposamenak7

1. Zerga-politiken eta gastu publikoaren inguruko parte hartze demokratikoa eta eztabaida soziala.....7
2. Zerga-politikaren aldaketa.....7
3. Gizarte-gastua gehitu8
4. Defizit publikoa eta zor publikoa.....8

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
INE	Instituto Nacional de Estadística
EIN	Estatistika Institutu Nazionala

EGOERAREN

A Z T E R K E T A

Sarrera

Egungo egoera ekonomikoaren aitzakia erabiltzen da aurrekontuak murriztu behar direla esateko, eta horretarako oinarritzat ez bairik ez duen zerbait hartzen da: diru-sarrera publikoen jaitsiera.

Halere, gogoratu beharra dago diru-sarrera eta gastuen arteko erlazioak taxutzen duela herri-administrazioen politika. Gaur inoiz baino areago nabarmendu behar da korrelazio hori, eta aurre egin behar diogu mezu ofizialari, gastu publikoa gutxitzea beste biderik ez dela geratzen dioen mezu horri. Areago, gastu publikoa murrizteak egoera ekonomikoa okertzen du, eta gastua era egokian gehitzea lagungarri izango litzateke ekonomiari bultzada positibo bat emateko.

Agiri honen asmoa argia da, herri-administrazioek dituzten baliabideei buruzko hausnarketa eta eztabaidan ekarpen bat egitea, baita baliabide horien erabilpenari buruz ere, murriztearen aurkako gure jarrera datu eta egintzekin defendatu ahal izateko.

* Txosten hau 2010ko martxoaren 30an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da

Aurrekontuen murrizketarik ez: fiskaltasuna aldatu eta gastu soziala handitu

A. Politika publikoak: aurrekariak eta egungo egoera

Ondoren administrazioen politika publikoen zenbait baliabide aztertuko ditugu, hain zuzen gastu publikoa, diru-sarrera publikoak, bien arteko erlazioa (aurrekontu-saldoa) eta zor publikoa.

1. Gastu publikoaren politika murriztailea

Azken urteotako aurrekontu-politikaren oinarria gastu maila apala izan da, eta horrek gizarteko funtsezko beharrianak baliabiderik gabe utzi ditu (etxebizitza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, osasungintza, etab.).

Eusko Jaurlaritzaren 2010rako aurrekontuak onartu zirenean, uneko beharrian ekonomiko eta sozialen aurkakoak ziren, %0,9 jaisten baitziren 2009ko gastu estimatuarekiko. Nafarroan berriz, gastua %0,1 handiagoa zen 2008an baino. Beraz, ekonomiaren atzeraldi betean, Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak erabakia hartu zuten: 2010an kontrapisu gisa jokatzeko inongo borondaterik ez zeukaten, sektore pribatuaren beharaldia nabarmena izanagatik.

ELAk iragarri zuen aurrekontu-politika honekin gizarte-gastua eta eskubide sozialak murriztu egingo zirela, eta langabezia areagotu.

2. Zerga-politika zentzugabea

ELAk hamaika bider salatu izan du Hego Euskal Herriko erakundearen zerga-politikaren nondik norakoa. Ez diote iruzur fiskalari ekin, errenta altuen, enpresen eta kapitalaren gaineko zergak zeharo murriztu dituzte, eta ondare-zerga kendu egin dute.

Politika honen adibideak honakoak ditugu:

- PFEZ 11 puntu murriztu dute errentarik handientzat, %56tik 45era EAEn eta %53etik 42ra Nafarroan.
- PFEZaren progresibitatea desagertu egin da laneko ez diren errentetan.

- Hego Euskal Herrian Laneko errentek PFEZean aitortzen duten batezbesteko diru-sarrerara (21.000 euro) jarduera enpresarial edo profesionaletako zergadunena baino 9.000 euro handiagoa da. Bi taldeon arteko aldea areagotu egin da.
- Sozietateen gaineko Zergaren tipo nominala jaitsi egin dute, Nafarroako %35 eta EAeko %32,5etik %28ra (eta are gehiago, enpresa tamainaren arabera).
- Ondare-zerga, errenta altuei ezartzen zaiena, desagertarazi egin dute.

Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoa enpresaburuen eta kapitalaren interesak asetzeko erabili izan dituzte. Agintzen dutenek, orain eta lehen, euren zerbitzutan egin dute lan. Horrela, urteotan milaka milioi euro gutxiago bildu dira, eta milioi horiek erabili egin behar ziren EBko batez besteko gizarte-babes mailaren antzekoa iristeko.

Errenta altuen eta kapitalaren gaineko zergak kentzearekin baliabide publikoak zeharo urritu dira, eta horrek eragin du administrazioen egungo finantza-egoera.

Berez, Eurogunearen atzekaldean gaude presio fiskalari dagokionez. Espainiar estatuan 2009. urterako BPGren %30,6ko presioa aurrikusten da, 8,1 puntu gutxiago euroguneko batz bestekoa baino. Ohikoa da ere Hego Euskal Herriko presio fiskala espainiar estatuarena baino txikiagoa izatea.


Espainiar estatuan eta Hego Euskal Herrian oso sarri aipatzen den argudio bat da ogasunek biltzen duten dirua gutxitzea egoera ekonomikoaren ondorio izan dela. Haatik, EBko datuek erakusten digute EAeko eta espainiar Estatuko jaitsiera Batasuneko beste toki batzutan baino askoz handiagoa izan dela, beste herrialdeetan krisia berton baino larriagoa izan den arren. Beraz, biltzen den dirua asko jaisteak zerikusi handiagoa du ezarritako zerga-politikarekin eta iruzur fiskala gehitu izanarekin, ez beste zergati batzuekin.

2007tik 2009ra bitartean presio fiskala espainiar Estatuan erori da gehien, BPGaren 6,6 puntu.



EAE (Nafarrorako ez dugu informaziorik oraindik) itunpeko zergen presio fiskala BPGaren %20,9tik %16,3ra jaitsi da (4,6 puntu, eta horiei gehitu beharko genioke itunpeko ez diren zergetako diru-sarreraren murrizketa; hauei buruzko informaziorik ez daukagu oraino). Alabaina, eurogunean batez besteko jaitsiera 1,6 puntu besterik ez da izan. Alemania aipagarria da, izan ere 2009ko presio fiskala 2007koa baino apur bat handiagoa izan baita.

Presio fiskalaren bilakaera. Eurogunea, 2007-2009



Iturriak: Eurostat, Europako Batzordea

3. Etengabeko superabita

Urte jakin bateko diru-sarrera eta gastuen arteko emaitzak ematen du administrazioen aurrekontu-saldoa. 1998 eta 2007 bitarteko hamarraldian saldo honek superabita eman du Eusko Jaurlaritzari eta EAeko foru-aldundiei dagokienez, eta defizita, berriz, 2008an eta 2009ko hirugarren hiruhilekoan (daukagun azken datua). Ondorioz, epealdi honetan metatu den aurrekontu-saldoak 4.457 milioi euroko superabita ematen du. Horrenbestez, aurrekontu-defizita aski fenomeno berria dugu euskal administrazioen historian.


Nafarroako egoera berdintsua da, 2000 eta 2008. urte artean Nafar Gobernuak metaturiko superabita 291,2 miloi eurotakoa baita.

Defizit publiko handia izan da gastu publikoa murrizteko Exijentzia plazaratzeko argudio nagusia. Halere, defizitaren aitzakiatik haratago

joan behar da, eta defizitak diru-sarrera publikoekin duen lotura aztertu beharra dago. Hain zuzen, ondorengo grafikoak argi erakusten du presio fiskala zenbat eta txikiagoa, defizit publikoa are handiagoa izaten dela.

Euroguneko estatu nagusien artean (Belgika, Alemania, Grezia, espainiar Estatuak, frantses Estatuak, Italia eta Portugal, eta horiekin batera, euroguneko batezbestekoa), defizit publikorik handiena (espainiar Estatuak BPGaren %11,2 eta Greziak %12,7) eta zerga-presiorik txikiena eskutik doaz (BPGaren %30,6 eta %30,5, hurrenez hurren). Hots, espainiar Estatuako edo Hego Euskal Herriko defizita presio fiskal arinaren ondorio argia da, eta ez gastu handiegiak eragina.

Defizit publikoa eta presio fiskala (BPG%). Eurogunea, 2009rako aurreikuspenak




Iturria: Europako Batzordea

Ondoko grafikoan ere ikus daitezke presio fiskalaren bilakaera eta defizit publiko maila lotuta daudela; honek frogatzen du defizit publikoaren gehikuntza batik bat presio fiskala gutxitu izanaren ondorio dela.

Aurrekontuen murrizketarik ez: fiskaltasuna aldatu eta gastu soziala handitu

Defizit publikoa eta presio fiskalaren bilakaera (BPG%). Eurogunea, 2009rako aurreikuspenak



Iturriak: Europako Batzordea, Eurostat

4. Zor publiko gero eta txikiagoa


EAEko administrazioen superabit handiak zor publikoa murrizteko erabili izan dira, ia bera desagertzeraino. Espainiako Bankuaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren zor publikoa BPGaren %3,8 adina besterik ez da, estatuko autonomia guztietako txikiena. Nafarroan zorra zerbait handiagoa da, BPGaren %6,2.

Hego Euskal Herriko erakundeen zor publikoa barregarria da EBko zor mailarekiko; EBko Itunak gehienezko muga %60an ezarri zuen.

Zehazki, txosten honetan erreferentziazat hartutako estatuak, denek dute zor handiagoa era nabarmenean.

Eurogunean zor publikoaren batezbestekoa BPGren %78,2 da.

Gobernuen zorra orotara (BPG%). Eurogunea, 2009rako aurreikuspena.



Iturria: Europako Batzordea

B. Egoera berria. Murrizketa gehiago

Arestian aipatutakoa ez da dena; oraingo egoera ikusirik, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak aurrekontuekiko bi erabaki hartu dituzte (2010rako aurreikusitako gastua murriztea eta zor publikoa jaulkitzeko ahalmenari uko egitea), ondoren aztertuko ditugunak:

1. Aurrekontuak doitzeko plana, 2010rako onartu zen gastua murrizteko

Eusko Jaurlaritzak iragarri du Espainiako gobernuarekin akordio bat lortu duela, EAEn aurrekontua doitzeko plan bat ezartze aldera; oraingoz (2010eko martxoak 30) planaren edukiak ez ditugu ezagutu. Daturik ezean, halere, salatzea da jokatzeko modua (gastua isilpean murriztu nahi dute, eztabaida politiko eta soziala saihestuz) eta horren ondorioak (enpleguan eta defizit sozialetan izango diren ondorioak larriagotu egingo dira).

Beraz, Lopezen gobernuak Madrilen sinatu duen akordioa antidemokratikoa eta neoliberal da, eta



Zapateroren gobernuaren erabakiari -krisia langileok ordaindu behar dugula, alegia- babesa ematen dio.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak bere aurrekontuaren %2,3ko gastu murrizketa iragarri du (107 milioi euro). Murrizketa hau PSN eta Espainiako Gobernuarekin duen akordioaren ondorioa da.

2. Erabakitzeko ahalmenari uko egitea, zor publikoa jaulkitzeari buruz

2009ko ekainean, Eusko Jurlaritzak estatuko Zerga- eta Finantza-Politikako komitean parte hartzen hasi zen, eta beronek autonomia-erkidegoentzako aurrekontuentzako defizit muga ezarri zuen, BPGaren %2,5 2010rako (2011rako %1,7 eta %1,3 2012rako). ELAk salatu zuen Jurlaritzak bere borondatez onartzen duela muga hori, komite haren erabakiak ez baitira EAerako bete beharrekoak. Bere eskumenei horrela uko egitea onartezina da, Jurlaritzaren aurrekontu-politika Espainiako gobernuaren erabakien menean jartzen baita.

Jurlaritzak erabaki honekin zorra gehitzeko aukera baztertzen du. Espainiako gobernu eta Gasteizkoa eztabaidan ari dira Jurlaritzak 2010an zenbateko zor publikoa jaulki dezakeen. Izan ere, Eusko Jurlaritzak onartu egin baitu defizitaren muga BPGaren %2,5ean dagoela, eta Espainiako gobernuak eman behar diola zorra saltzeko baimena.

C. ELAren proposamenak

ELAk arbuiatu egiten ditu gastua murrizteko iragarri diren erabakiak. Azken urteetako ildo beretik doaz, eta berriz ere murriztu nahi dituzte herritarren eskubideak, batez ere sektorerik ahulenenak.

Diru-sarrera eta gastu politikak goitik behera aldatu behar dira, honako puntuetan oinarrituta:

1. Zerga-politiken eta gastu publikoaren inguruko parte hartze demokratikoa eta eztabaida soziala

Defizit demokratiko izugarria daukagu. Zerga- eta aurrekontu-politikak elite baten esku daude, eta elite horrek ez du informaziorik ematen, ez politika horien inguruko eztabaida edo definizioan parte hartzea bideratzen. Aldaketa eskatzen duten iritzi kritikoak baztertu eta isilarazi nahi dituzte, aukera hori beharrezkoa eta egingarria den arren.

Beraz, ezinbestekoa da informazio bideak irekitzea (politika gardenagoa eginez eta datu gehiago emanez) eta gizartearen parte hartzea sustatzea, politika publikoak erabakitzerakoan.

2. Zerga-politikaren aldaketa

ELAren proposamena biltzen den dirua gehitzea da, diru-sarrera handien eta kapitalen gaineko presio fiskala handituz, honako erabakiekin:

1. Soldatapeko ez diren errentetan dagoen iruzur fiskalaren kontrako borroka. Horretarako errenta hauek guztiak iruzurra iraungi baino lehenago ikuskatu beharra dago.
2. PFEZean:
 - Zergaren progresibitatea areagotu, tipo marjinala %56raino igota.
 - Zerga honetan errenta guztiei tratu bera eman, kapitalek, jarduera enpresarial eta profesionalak duten pribilegioa deuseztatuta.
3. Sozietateen Zergako tipo nominala %35eraino gehitu eta zerga-aringarriak zeharo murriztu.
4. Ondare-zerga berrezarri.
5. Ondare handia dutenek erabiltzen duten ingeniari-tza fiskala desagerrarazi.

Zerga bidez biltzen den diru kopurua handituz gero, gastu publikoa ez litzateke murriztu beharko, eta gainera zorrak gastua bera indartzeko aukera legoke: honek sendotu egingo luke administrazioari dagokion egitekoa, aberastasuna

Aurrekontuen murrizketarik ez: fiskaltasuna aldatu eta gastu soziala handitu

birbanatzea, eta hori inoiz baino behar handiagoa da oraintxe.

3. Gizarte-gastua gehitu

Hego Euskal Herriko gizarte-babeseko gastua %50 gehitu behar da EBko batez besteko mailara heltzeko. Europa mailan azkenetakoak gara gastu publikoari dagokionez osasungintzan, hezkuntzan, zerbitzu sozialetan, pentsioetan, etab.

Gastu sozialak herritarren bizi-kalitatea hobetzen du, eta administrazioek beste kontu batzutan (azpiegituretan, adibidez) egiten duten gastuak baino lanpostu gehiago sortzeko aukera ematen du; hori litzateke benetan gizarte-eredu iraunkorra.

4. Defizit publikoa eta zor publikoa

Erkidego eta Nafarroako gobernuek bere kabuz erabaki behar dute defizita eta zorraren maila, espainiar eremuan hartutako erabakiei men egin gabe.

Abagune honetan baliatu behar den marjina handia dago Eusko Jaurlaritza eta Nafar Gobernuaren defizita eta zor publikoa handitzeko.

